

Vitoria-Gasteiz, 2016-05-16

## **EUSKO JAURLARITZAK ETA LASARTE-ORIAKO UDALAK HITZARMENA SINATU DUTE ERAKUNDE BIEN ARTEAN DATUAK ONLINE TRUKATU AHAL IZATEKO**

- **Eusko Jaurlaritzak eta Lasarte-Oriako Udalak sinatutako hitzarmenari esker, herritarrek errazago egingo dituzte izapideak eta administrazio-prozedurak.**
- **Bi erakundeek kostuetan eta espazioan aurreztuko dute.**
- **Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, eta ez du kontraprestazio ekonomikorik edukiko.**

Eusko Jaurlaritzak eta Lasarte-Oriako Udalak bi erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri eskaintzeko.

Bi erakundeek elkarreragingarritasuna hobetzeko lineako zerbitzuak eskaintzeko konpromisoa hartu dute; hau da, informazioa, datuak eta zerbitzu elektronikoak partekatuko dituzte.

Erabiliko den Elkarreragingarritasun Sistemari esker, paperezko ziurtagirien eta gainerako agirien ordeztatu datu-transmisio elektronikoak erabiliko dira, partekatutako informazioaren benetakotasun, osotasun, isilekotasun, eskuragarritasun eta kontserbazio baldintzak bermatuta.

Hala, sendoagoa izango da Eusko Jaurlaritzaren eta Lasarte-Oriako Udalaren arteko lankidetzeta, bi erakundeen artean informazio trukatze sistema eratuko baita; ondorioz, herritarrei datu-ziurtagirien eskatu beharrik izan gabe egingo dira izapide administratiboak. Beraz, herritarrek dagoeneko Administrazio Publikoen esku dauden datuak eta agiriak ez emateko aukerak eskubidea bermatuko dugu.

Hitzarmen honen bidez, Eusko Jaurlaritzak eta Lasarte-Oriako Udalak urrats bat gehiago eman dute Herritarrei Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legea betetzeko. Horren arabera, administrazio publiko guztiek haiekin harremanetan jartzeko bide elektronikoak erabili ahal izatea bermatu eta beren artean informazioa trukatu behar dute, herritarrek izapide administratiboak errazago egin ditzaten.

Lankidetzeta-hitzarmenak lau urteko iraunaldia du, urtez urte luza daiteke modu automatikoan, gehienez ere hamabost urtez, eta ez du koste ekonomikorik izango aldeentzat.

### **HERRITARRENTZAKO ONURAK**

- **Herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzea.** Administrazioen arteko lankidetzari esker.
- **Administrazioen sistemen artean informazioa trukitzea.** Asmoa da herritarrek ez daitezela ibili erakunde batetik bestera, batek jaulkitako agiriak bestean aurkeztu behar dituztelako edo erakunde bat baino gehiagoren aurrean eskaerak nahiz idatziak izapidetu behar dituztelako.

- **Izapide eta prozedura administratiboak sinplifikatzea.** Izapide administratiboetan edo ziurtagiriak eskatzerakoan aurkeztu beharreko agirikopurua murriztuko da.
- **Gardentasuna eta erraztasuna.** Herritarrek ez dute jakin beharko administrazioek eskainitako zerbitzuen atzean datzan barruko tramitazioa; izan ere, orain arte, batzuetan ezinbestekoa zen hori ezagutzea zenbait izapide egiteko.

## **ADMINISTRAZIOENTZAKO ONURAK**

- **Eraginkortasuna hobetzea.** Jardunbide administratiboaren eraginkortasuna areagotuko da lankidetzaren eta kooperazioaren bidez.
- **Aurrekia kostuetan eta egoitzetan.** Paperaren ordean agiri elektronikoak erabilia, paperezko agiriak jaulkitzeagatik kostuak murriztuko dira, baita agiriok biltegiarazera bideratutako beharrezko espazioa ere, eta inguru giroa zainduko dugu.
- **Lan-zama arintzea.** Truke elektronikoaren bidez datu-zama arintzen da hartzailearen kudeaketa-sistemetan.
- **Informazioaren kalitatea hobetzea.** Hartzaileen kudeaketa-sistemen informaziozaman gerta daitezkeen akatsak ezabatzen ditu, zama hori bera automatizatu egin baitaiteke.

Eusko Jaurlaritzaren eta Lasarte-Oriako Udalaren ustean, beharrezkoa da administrazio elektronikoa azkar eta modu eraginkorrean garatzea, herritarren eta administrazioen arteko harreman elektronikoak ahalbidetzeko.

## **BESTE UDAL BATZUEKIN SINATUTAKO HITZARMENA**

Lasarte-Oriako Udalarekin ez ezik, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena hiru Foru Aldundiekin, hiru hiriburu-udalekin ere sinatu du, Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz, eta Irun, Barakaldo, Ermua, Beasain, Andoain, Tolosa, Mendaroko udalekin eta Txorierriko Mankomunitatearekin ere bai.